

HAUR ETA GAZTE LITERATURAREN PROGRAMA

Deskriptiboak: Haur eta Gazte Literatura eta bere Didaktika. Lehen Hezkuntza.

Helburuak

- 1- Orokorrean, Haur eta gazte literatura-eskola emateko oinarri beharrezkoak jakitea, alde batez Literatur arloak ekarritakoa kontuan hartuz, beste aldez Psikologiak, Pedagogiak eta Soziologiak esparru honi gehitu diotena kontuan hartzen ere bai.
- 2- Historian zehar Haur eta Gazte Literaturak izandako bilakaera ikuspegi kritikoaz aztertu eta jakitea.
- 3- Euskal Haur eta Gazte Literaturaren garapen historikoa aztertu eta jakitea, Euskal Mitologia zaharretik 1975era arte.
- 4- Gaur eguneko Haur eta Gazte Literaturaren panoramika orokorra jakitea.
- 5- Irakurketa sustatzeko estrategia batzuk lantzea.

Edukiak

- 1- Haur eta Gazte Literatura: definitzeko kontzeptu ezberdinak. Polemika. Ezaugarriak. Lehen Hezkuntzako haur eta gazteentzako testu eta jenero egokiak; irakurle horientzako gustuak eta "disgustuak". Narrazioaren hastapenak Vladimir Propp-en teoriaren arabera. Irakurketa sustatzeko estrategia eta prozedura ohizkoenak.
- 2- Haur eta Gazte Literaturaren Historia, ahozko literaturaren sorburutik idatzizko arora, Erromantizismora heltzeraino:
 - a) Literatura folklorikoa: Lehen mitoak eta kulturen sorburuak (Paleolito Aroan, Neolitoan, Ardatz-Aroan eta hurrengoan).
 - b) Trantsiziozko Literatura: ahozkoa idatzira pasarazi zenekoan. Grezia eta Erroma klasikoan. Erdi Aroan.
 - c) Literatura kultua eta idatzia: Kristau elizak eta katolizismoak izandako eragina: Erreforma erlijiosoa eta eskolatzea. Literatura didaktiko eta moralizatzailearen sorrera. Lehen eskolak eta haurrentzako testuak. Errenazimendutik Erromantizismora.
- 3- Euskal Haur eta Gazte Literaturaren Historia:
 - a) Euskal Mitologia (kontzeptu orokorrak. Pertsonaia mitologikoak. Sinbologia. Mitologiaren txertaketa eguneko Haur eta Gazte Literaturan.
 - b) Euskal Haur eta Gazte Literaturaren sorrera: lehen fasean (1803-1936)/ bigarren fasean (1936-1960) / Hirugarren fasea (1960-1975).
- 4- Euskal Herrian eta honen inguruko kultura askotan, Haur eta Gazte Literatura gaur egun: Laugarren fasea (1975tik aurrera). Joerak, eskolak, ezaugarriak. Eguneko haur-gazteentzako testu literarioak arrakastatsuenak, gure inguruan
- 5- Euskal Mitologia zaharrari buruzko estrategia batzuen lanketa, ahozko zein idatzizko lau trebetasunak erabiliz: taldeka eta bakarka ikus-entzunezko ariketa praktiko zenbait egingo dituzte unibertsitateko ikasleek.

Metodologia

Metodologia eragilea izango da neurri handi batean; edonola ere, partehartzailea, lankidetzan eta hausnarketan oinarrituta, teoria eta praktika elkarren artean lotuz. Hori dela eta, irakaslea eta ikasleak ere garatuz joango dira eduki-multzoak, aurkezpenetan elkarriketak, eztabaidak eta iritzi ezberdinak sortarazteko asmoa izango dutela.

Arlo praktikoan irakasle-gaiak bakarkako lanak egin beharko ditu alde batez; beste aldez ikasgelan taldekako lanak ere amankomunean egingo ditu, lankide bakoitzak egindakoaz baliatuz.

Talde lanak eta lankidetza bereziki garrantzizkoak izango dira, errespetu, konfiantza eta tolerantzia giroa agertuz eztabaidetan.

irakaslearen funtzioak, besteak beste, honakoak izango dira: irakasgai honen aldeko gogoia piztea; errespetu eta konfiantzako giroa zaintzea; edukiak orokorki kokatu eta horietako batzuk azaltzea; oinarritzko argibideak eskaintzea; azterketa kritikora bultzatzea; taldeen eginkizunak bideratzea, ariketa praktikoaren zuzendaritza ere bere gain hartuko duelarik.

Prozesuaren azkenean ikasleen ebaluazioa egingo du, nahiz eta arlo praktikoan ikasleekin beraiekin batera egingo duen.

Ikasleek, euren alde, eskolako hizketaldietan parte hartzeaz gain, euskal mitologiari buruzko ariketa praktikoak taldeka behin asmatu eta prestatuz gero, horien aurkezpenak egingo dituzte egun jakin batean, eduki teoriko zenbait garatuz eta estrategia didaktiko ezberdinak azaleraziko dituztela.

Ariketa praktiko horrek trebetasun zein gaitasun batzuk lantzerantz bultzatuko du irakasle-gaia. Besteak beste, hona hemen hauetako batzuk: edukiak garatzeko informazio-bideak ezagutu eta burutzea; lorturiko informazioa irakurri eta erabiltzea, bazterketa edo datu-base batean gordez gero, testu berriaren prestaketa egitea. Hori egin eta, testu berri hori komunikatzeko moduak bildu, aztertu eta berriro ere aukeratu. Geroko prestaketa beharrezkoa dute, beti ere bakarka zein taldeka, aurkezpen-egunera ailegatu arte.

Baina irakasle-gai hauek bereziki landuko dutena taldekako lana egitea izango da: eginkizunen antolaketa; akordioetara heltzea; eztabaidak, kritikak, autokritika egitea; autonomia eta erantzukizuna; e.a.

Beraz, **eskolan zuzen parte hartzea derrigorrezkoa dute irakasle-gaiek**: etorri ezinean, irakaslearekin hitz egin beharko dute, arrazoiak emateko eta kasurik kasu bere egoerara moldatu ahal izateko.

Ebaluazioa

Ikasturtearen azkeneko **azterketa idatziaren bidez** kalifikatuko da ikasleen ezagutza teorikoa, egitarau honetan bereizi diren eduki guztiak kontuan hartuta.

Azterketa idatzia 2 galdera orokorraz osotuko da, bakoitzak 25 puntu balioko dituen (denetan 50 puntu arlo teoriko honetan).

Halaber, ikasturtean zehar ikasleek egingo duten **ariketa praktikoa** ebaluatuko da, kurtsoa hasiz gero ikasle-irakasleen artean bereiztuko den moduan (denetan 50 puntu ere balioko ditu arlo praktiko honek).

Arlo teorikoaren puntuazioa zein arlo praktikoarena bat eginda kalifikazio globala zehaztuko da, beti ere **arlo banatan gutxienez 25 puntu lortzea beharrezkoa dela kontuan hartzen** (hau da, bai teorian bai praktikan nahikoa izanik).